



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

ALDUNDIAK KONPOSTAJE PLANTEN ESKUALDEKO EREDUA ZABALDUKO DAU 2021EAN

- **Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako foru diputatuak, bosgarren edukiontziko hondakinak tratetako sistema barriaren lizitazioaren ganeko informazioa emon dau Bizkaiko Batzar Nagusietan; oraindino erabagi barik dagozan lurraldeko hiru puntutan egongo da.**

(Bilbon, 2020ko garagarrilaren 6an). Bizkaiko Foru Aldundiak, Garbiker soziedade publikoaren bitartez, eskualde mailako konpostaje plantak martxan jarteko lizitaziorako prozedura hasi dau, gaur goizean, EH Bilduk eskatutako agerraldi batean, Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako foru diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusietan azaldu dauenez. Foru erakundeak zatiki organikoaren batuketea eta tratamendua zabaltzeko helburua lortzeko emon dauen “beste aurrerapausu bat” da, bosgarren edukiontzia (edukiontzi marroia) bitartez lurraldean modu selektiboan batzen diran gero eta bio-hondakin kopuru handiagoak kudeetako ahalmena handituz.

Neiker zentro teknologikoagaz lankidetzan konpostaje sistema desbardinak aztertu eta gero, lurraldearen ezaugarri demografikoetara eta orografikoetara egokituko dan sistemea aukeratu da. Garbikerrek edegi dauen lizitazioak, konpostajeko hiru errektore bertikal, kargetako pala teleskopiko bi, birringailu bi eta hiru kribagailu aurreikusten ditu.

Eskualde mailako hiru planta horreek ezarri eta gero, zatiki horren kudeaketea deszentralizatu be egingo da, eta, hori dala eta, hondakin horreek eta tratamenduaren ostean lortutako konpostak kamioietan egiten dituen bidaiak laburragoak izango dira, eta horrek “zerbitzuaren eraginkortasuna hobetuko dau”. Horrek, aldi berean, “negutegi efektua daukien gas gitxiago isurtzea ekarriko dau, eta jasangarriago bilakatuko ditu” bio-hondakinaren batuketea eta tratamendua.

Konpostaje bertikaleko sistemen abantailea, “prozesuaren espazio beharrak ahalik eta gehien murrizten dabela” da. Kanpoaldean egon daitezke, eta instalatuko “ez da obra handirik behar”, azaldu dau Unzuetak. Ganera, Aldundiaren esku dagon soziedade publikoak, “behar izan ezkerreko instalazioen



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ahalmena handitzeko aukerea emongo dauen sistema modulagarria” aukeratu dau.

Eskualdeetako plantak osatuko dituen elementuak eskuratzeaz batera, Bizkaiko Foru Aldundia eta Garbiker, ekipamendu barriak ezarriko diran eskualdeak zehazteko azterlana ari dira egiten, hainbat gai kontuan hartuta: sortzen dan holango hondakin kopurua edo eskualdeen eta Artigaseko Konpostegiko instalazioen artean dagon distantzia, hain zuzen be. Hori da orain arte zatiki organikoaren tratamendua egiten dauen planteak. Eskualde mailan “hainbat hautagai” dagoz.

Unzuetak nabarmendu dauenez, 2021ak jauzi “kualitatibo eta kuantitatibo” handia ekarriko dau zabor organikoaren zatiki horren aprobetxamenduan. Aprobetxamendu hori handitu egingo da datorren urtean, “Bizkaia osoan” hedatuta egongo dan bosgarren edukiontzian okela eta arrain hondakinak jasoteko aukereagaz.

Batzarretako taldeek “pozik” hartu ditue konpostaje arloko aurrerapausu horreek, baina Elkarrekin Bizkaiaiko Héctor Fernándezek, oraindino edukiontzi marroirik ez daukien “16 udalerrri” egotea eta Bizkaia Europak marketan dauen helburutik “urrun” egotea kritikatu dau. Europak marketan dauena, “2026an” materia organikoaren batuketa selektiboan “%4,5era” heltzea da. Urtero Bizkaian batzen diran “10.700 tonak” guztiaren “%1,7” baino ez dira.

ABELBURUAK BAHITU IZANA ZUGAZTIETAN

Maiatzaren 19an Aldundiak Macho harrobiaren inguruan (Ortuella) hamar abelburu bahitu izanak, Iraunkortasuneko diputatua Bizkaiko Batzar Nagusietara etorteko eskatzera eroan ebazan EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia taldeak. Talde biek uste dabenez, Trianoko mendietan errepikatu egiten dan gertakari horrek, “artzaintzako eskubide historikoak ez dirala errespetetan ari” erakusten dau. Eskubide hori “denporaz gaindikoa eta herritar guztientzakoa” da, eta holan jasoten dabe epaileen “hainbat” erabagik.

Unzuetak ukatu egin dau eskubide horreek lur horreek babesten dituenik, meategietako ustiapenak ailegau ziranean eskubideak balio barik geratu ziran eta. Holan, Aldundiak, 1988an, 600 hektareako 500 zenbakiko Ondare Mendia eskuratu eban, “karga barik, Jaubetzaren Erregistroaren inskripzioan



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

adierazoten dan moduan”. Diputatuak baieztu dauenez, inguruko abeltzainakaz eta inplikautako udalakaz urte luzez behar egin ostean, “pausu garrantzitsuak” emon dira aisiarako eta artzaintzarako guneak jasoten dituan lurraren erabilerak antolatzeko. Une honetan, “legez eraturako hiru alkartek” daukie inguru horretan artzaintzarako administrazioaren emakidea

Unzuetak azaldu dauenez, inguru horretan abelburuen jaube batzuekaz errepiketan dan gertakaria, Aldundia jaube dan “91,19 hektareako” lurraren parte batean emoten da, eta “leku horretan ez dago bazkatzeko eskubiderik”. Hori dala eta, Aldundiak jardun behar izan dau, eta “eten barik eta behin eta berriz” araudia beteten ari ez diran jaubeen abelburuak bertatik eroan.

Aldundia gauzatzen ari dan jarduketek, horreen artean abelburuak bahitzea, hainbat “arazo” saihestu gura ditue, adierazo dau, horreen artean, Gallarta eta Zugaztieta lotzen dituan errepidera sartzen diran abelburuek sortzen dabenean “bideko segurtasun faltea”, “gurata” egindako suteen eragina, aisiarako guneetan dagozan higiene arazoak, lurraren “legez kanpoko” okupazioak edo Aldundiko beharginen jasan dituen “indarkeria eta mehatxu” gertakariak, adibidez.

EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia taldeek, euren aldetik, esan dabe penagarria dala Aldundiak foru agindu bat eta administrazio arloko emakida bat erabiltea artzaintzarako eskubide historiko bat kentzeko. Iratxe Arriola koalizio abertzaleko batzordekideak abelburuak libre izteko, abeltzainei kalte-ordaina emoteko, eta abeltzainen eskubideen kontra dagon gatazkea “alkarriketan oinarrituta” konpontzeko eskatu dau. Abelburuak bahitzea, jaube horreen kontrako “txantajea” dala esan dau.

Unzuetak, bere aldetik, araudia apliketan jarraituko dabela adierazo dau, eta artzaintza baimenduta ez dagon lurretan “legez kanpo” sartu diran abelburuak “70” inguru izan dirala esan dau. Nabarmendu dauenez, abelburuak bahitu aurretik jaube “guztiei” jakinarazoten jake egin behar dana, eta “batek be” ez ditu bere animaliak bertatik kendu gura izan. Mendien Foru Arauaren eta hiru alkarteri emondako administrazio arloko emakidak arautzen dituen foru aginduen kontrako jokabideak eta jarrerak gaitzetsi ditu, eta jokabide horreek, euren abelburuak Bizkaiko Foru Aldundia jaube dan lurretan egoteko legezko aginduak beteten dituenen kontra doazala azpimarratu dau.



NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN EXTENDERÁ EN 2021 EL MODELO COMARCAL DE PLANTAS DE COMPOSTAJE

- **La diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, informa en las Juntas Generales de Bizkaia de la licitación del nuevo sistema de tratamiento de residuos del quinto contenedor, que será ubicado en tres puntos del territorio aún por determinar.**

(Bilbao, a 6 de julio de 2020). La Diputación Foral de Bizkaia, a través de su sociedad pública Garbiker, ha iniciado el procedimiento de licitación para la puesta en marcha de plantas de compostaje comarcales, según ha explicado esta mañana, en las Juntas Generales de Bizkaia, la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, en una comparecencia solicitada por EH Bildu. Se trata de “un paso adelante más” de la institución foral para lograr el objetivo de ampliar la recogida y tratamiento de la fracción orgánica, aumentando la capacidad para gestionar las crecientes cantidades de biorresiduos que se recogen selectivamente en el territorio a través del quinto contenedor (contenedor marrón).

Tras analizarse diferentes sistemas de compostaje en colaboración con el centro tecnológico Neiker, la Diputación ha elegido finalmente un sistema que se adapta a las características demográficas y orográficas del territorio. La licitación abierta por Garbiker contempla la adquisición de tres reactores verticales de compostaje, dos palas cargadoras telescópicas, dos trituradoras y tres cribadoras.

La instalación de tres plantas comarcales supone la descentralización de la gestión de esta fracción de basura y ello tendrá como consecuencia la reducción de los trayectos en camión de estos residuos y también del compost resultante del tratamiento, “aumentando la eficiencia del servicio”. Esto, a su vez, “redundará en una reducción de las emisiones de gases de efecto invernadero y hará más sostenible” la recogida y tratamiento del biorresiduo.

Los sistemas de compostaje vertical tienen la ventaja de “reducir al máximo posible las necesidades de espacio del proceso”. Pueden estar ubicados en el exterior y su instalación “no requiere de grandes obras”, ha explicado Unzueta. Además, la sociedad pública foral ha optado por un sistema “modulable que



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

permitirá ampliar progresivamente la capacidad de las instalaciones si fuera necesario”.

De forma paralela a la adquisición de los elementos que compondrán estas plantas comarcales, la Diputación Foral de Bizkaia y Garbiker están desarrollando un proceso de análisis para determinar las comarcas en las que se implantarán los nuevos equipamientos, teniendo en cuenta cuestiones como la cantidad de este tipo de residuos que se generan o la distancia existente entre las comarcas y las instalaciones de Konpostegi en Artigas, la planta en la que se realiza ahora el tratamiento de la fracción orgánica. Hay “diversas novias” a nivel comarcal.

Unzueta ha subrayado que 2021 supondrá un salto “cualitativo y cuantitativo” en el aprovechamiento de esta fracción de la basura orgánica, que se acrecentará con la posibilidad de que para el año próximo se recojan restos de carne y pescado en un quinto contenedor que espera esté extendido ya “por toda Bizkaia”.

Los grupos junteros han recogido estos avances en materia de compostaje con “satisfacción”, si bien Héctor Fernández, de Elkarrekin Bizkaia, ha criticado que aún existan “16 ayuntamientos” sin contenedor marrón y que Bizkaia se encuentre “lejos” del objetivo que marca Europa, como es alcanzar el “4,5%” de recogida selectiva de materia orgánica “en el año 2026”. Las “10.700 toneladas” recogidas anualmente en Bizkaia suponen un “1,7%” del total.

INCAUTACIÓN DE GANADO EN LA ARBOLEDA

La incautación de diez cabezas de ganado en la zona de la cantera Macho (Ortuella) por parte de la Diputación, el 19 de mayo, empujó a EH Bildu y a Elkarrekin Bizkaia a pedir la comparecencia de la diputada de Sostenibilidad en las Juntas Generales de Bizkaia. Ambos grupos creen que este episodio que se ha repetido varias veces en los Montes de Triano, refleja que “no se están respetando los derechos históricos de pastoreo”, un derecho que es “atemporal y para toda la ciudadanía”, y que es recogido por “varias” sentencias judiciales.

Unzueta ha negado que dichos terrenos estén protegidos por estos derechos, ya que estos se anularon con la llegada de las explotaciones mineras. Es más,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

la Diputación adquirió el Monte Patrimonial 500, de 600 hectáreas, en 1988, “sin cargas, tal y como consta en la inscripción en el Registro de la Propiedad”. La diputada ha confirmado que tras largos años de trabajo con ganaderos de la zona y ayuntamientos implicados, se ha conseguido dar “pasos importantes” para ordenar los usos de un terreno que incluye zonas recreativas y de pastoreo. Actualmente, “tres asociaciones legalmente constituidas” tienen una concesión administrativa para desarrollar el pastoreo en dicha zona.

Unzueta ha explicado que el incidente que se repite en la zona con varios propietarios de ganado, se está dando en parte de una extensión de “91,19 hectáreas”, propiedad de la Diputación, “en donde no existen estos derechos de pastos”, de ahí que la Diputación haya tenido que actuar y retirar ganado de propietarios que “continúa y reiteradamente” están incumpliendo la normativa.

Las actuaciones que está desarrollando la Diputación, entre las que se encuentra la incautación de ganado, pretende evitar distintos “problemas”, ha advertido, entre los que ha citado la “inseguridad vial” producida por la invasión de ganado en la carretera que une Gallarta y La Arboleda, el impacto de incendios “intencionados”, problemas de higiene en zonas recreativas, ocupaciones “ilegales” de terreno o episodios de “violencia y amenazas” hacia el personal foral.

EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia han lamentado que Diputación se excuse en una orden foral y en una concesión administrativa para suprimir un derecho histórico de pastoreo que existe. La apoderada de la coalición abertzale Iratxe Arriola ha pedido que “se ponga en libertad” al ganado, “se indemnice” a los ganaderos y “se arregle de forma dialogada” un conflicto que atenta contra los derechos de estos. Ha tachado la “incautación” de reses de “chantaje” hacia estos propietarios.

Por su parte, Unzueta ha explicado que seguirán aplicando la normativa y ha cifrado en “70 cabezas de ganado” las introducidas “ilegalmente” en terrenos donde no se permite el pastoreo. Ha asegurado que “todos” los propietarios son advertidos antes de la retirada y “todos” han rechazado recoger su ganado antes de que lo hagan los empleados forales. Ha rechazado los comportamientos y actitudes contrarios a la Norma Foral de Montes y a las órdenes forales que regulan las concesiones administrativas a tres asociaciones y ha destacado que esos comportamientos perjudican a personas



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

que sí cumplen los preceptos legales para que su ganado pascie en terrenos propiedad de la Diputación Foral de Bizkaia.